

# ERRENTERRIAKO ANFIBIO ETA NARRASTIEN INBENTARIOA AURRERA DOA

Xabier Rubio



2017an jarraitu dugu Errenterriako Udalerriko inbentario herpetologikoa osatzen. Honezkero, 5 urte lanean eta anfibio eta narrastien 750 aipu baino gehiago bildu ditugu. Poliki poliki espezieen banaketa mapa osatzen ari gara eta dagoeneko datu andana lortu dugu. 1x1 kmko eskalan ari gara eta horrek aldi berean bestelako analisiak ahalbidetzen dizkigu, zonalde ezberdinen biodibertsitatea neurtzeko esaterako.

Orain arte eginiko laginketetan 6 anfibio espezie eta 11 narrasti espezie topatu ditugu:

## ANFIBIOAK

Izena euskaraz	Izen zientifikoa	Gazteleraz
Arrabioa	<i>Salamandra salamandra</i>	Salamandra común
Uhandre palmatua	<i>Lissotriton helveticus</i>	Tritón palmeado
Txantxiku arrunta	<i>Alytes obstetricans</i>	Sapo partero común
Apo arrunta	<i>Bufo spinosus</i>	Sapo común
Baso-igel gorria	<i>Rana temporaria</i>	Rana bermeja
Ur-igel berdea	<i>Pelophylax perezi</i>	Rana verde

## NARRASTIAK

Izena euskaraz	Izen zientifikoa	Gazteleraz
Zirauna	<i>Anguis fragilis</i>	Lución
Sugandila arrea	<i>Podarcis liolepis</i>	Lagartija parda
Horma sugandila	<i>Podarcis muralis</i>	Lagartija roquera
Sugandila bizierrulea	<i>Zootoca vivipara</i>	Lagartija de turbera
Musker berdea	<i>Lacerta bilineata</i>	Lagarto verde
Hegoaldeko suge leuna	<i>Coronella girondica</i>	Culebra lisa meridional
Iparraldeko suge leuna	<i>Coronella austriaca</i>	Culebra lisa europea
Suge gorbataduna	<i>Natrix astreptophora</i>	Culebra de collar
Suge biperakara	<i>Natrix maura</i>	Culebra viperina
Sugegorria	<i>Vipera seoanei</i>	Vibora cantábrica o de Seoane
Eskulapioren sugea	<i>Zamenis longissimus</i>	Culebra de Esculapio



Azken hamarkada luzean Errenterriko udalerrian sortu den putzu sarearen mapa.

Baina urte hauetan eginiko lana ez da soilik Udalerriko atlas edo inbentarioa egitera mugatu, kontserbazio aktiboa deritzon horren baitan ekintza ezberdinak burutu baitira, hala nola hezegune berrien eraketa edota fauna txikiarentzako gordelekuen sorrera. Neguan 2 putzu berri sortu ziren Aldurako gainean eta beste 4 mikrohezegune egokitu ziren Burkondo aldean, Errenterriko eta Aiako Harria Parke Naturaleko putzu sarea egonkortuz. Bestalde, urte hauetan guztietan

sentsibilizazio eta heziketa mailan erakusketak prestatu dira eta hitzaldi zein irteera ezberdinak burutu ditugu.

Orain arte Errenterriaren sortu edo egokitu diren hezeguneak hauetxeak dira: Malbazar, Igantzi, Pagosarde, Aldura eta Burkondoko putzuak (Aiako Harria Parke Naturalean), San Markoko uraska eta Kutarroko putzua (Lau Haizeta Parkean). Horietan guztietan hainbat anfibio espezie modu egonkor eta jarraian ugaltu dira, animalia talde honentzat ugaltoki garrantzitsuak bilakatu direlarik. Urteetan hezeguneak suntsitzen eta betetzen egon eta gero bazen garaia kontrakoa bidea hartzekoa, batez ere anfibioak mundu mailan dagoen ornodun talderik mehatxatuen delako kontuan harturik. Espezieen %33tik gora dago mehatxatuta eta asko dira kinka larrian daudenak, batzuk berriki desagertu direlarik. Populazioak oro har, gainbehera datoz eta arazorik handiena da toki askotan daturik ere ez dagoela. Hortaz, Errenterriaren abiarazi genuen proiektua inbentario batetik haratago doa, hemengo populazioen egoera aztertze eta ematen baitigu. Eta ez pentsa anfibioak direla putzuen sorreraren onuradun bakarrak. Izan ere, ornodun zein ornogabe ugari baliatzen dira ur-puntu horietan, biodibertsitate puntu beroak bilakaturik. Horrela, babestutako beste espezie ugariaren mesedetan ere sortu dira. Saguzarrek esaterako ehizaleku bezala hartzen dituzte eta emeek edoskitze garaian maiz bisitatzen dituzte ura edateko ere. Beraz, anfibio eta narrasti batzuk ez ezik, ur-intsektuak, burduntzi eta sorgin-orratzak kasu, hegaztiak eta ugaztunak ere ditugu hezegune horien ohiko bisitari.

2017an anfibio eta narrastien banaketaren analisisa burutu da taldeka, koadrikulen garrantzia herpetologia mailan neurtuz. Oraindik datuak biltzen dituen mapak lagindu gabeko edo aipu gutxiko eremuak izan, Udalerriaren hegoaldea (Aiako Harria Parke Naturala) litzateke eremurik aberatsena eta biodibertsioena, batez ere anfibioei dagokienez. Narrastien kasuan azpimarratzekoa da Parkearen kanpoko gerrikoan lorturiko emaitzak, esaterako Litorreta inguruan non inguruotan ugariago beharko luken babesturiko Eskulapioren sugea topatu den.

Zoritxarrez, ugariak dira mehatxuak. Hezeguneak berehala naturalizatu egiten badira ere eta esker



oneko lanak izanda ere, kalteberak ere badira. Jadanik putzu pare batetik kanpoko espezie inbaditzaileak harrapatu eta kendu behar izan ditugu. Ahaztu gabe kanpoko animaliak naturan askatzea debekatuta eta gogor zigortuta egoteaz gain, kalte ikaragarria eragin dezakeela bertako biodibertsitatean. Udaberria izaten da anfibioak eta narrastiak behatzeko urtarorik egokiena eta orduan ere ematen dira ezusteko gehienak. Maiz, sugeak, musker eta sugandilak bide eta errepedeetara irten ohi dira eguzki bila eta tarteka zapalduak izaten dira. Eta tamalez, oraindik bada animalia hauek kolpeka akabatzen dituen astakirtena.

2018an lanari jarraipena eman nahi zaio, aipurik gabeko lekuak aztertuz. Sugeak topatzea berebiziko erronka da beti, oso izuak dira eta. Errenteriako inbentarioa bide onetik doa eta erradiografia ona lortzen ari gara. Bestalde, sentsibilizazioan sakondu beharra dago, biodibertsitatearen kontserbazioa denon ardura da, erronka handia, eta denon elkarlana behar du.

